



**2022KO URRIAREN 27KO  
OHIKO OSOKO BILKURA**

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta hogeita biko urriaren hogeita zazpian, arratsaldeko sei eta erdietan, Lazkaoko Udal Osoa bildu da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Kepa Zubiarrain Erauskin Alkatearen lehendakaritzapean, ohiko batzaraldia egin asmoz.

Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Amagoia Naldaiz Mingo, Aitor Altuna Oiarbide, Eneritz Miranda Muxika, Felix Urkola Iriarte, Beni Goñi Padura, Iñaki Estensoro Sarasola, Joxemai Ormazabal Sukia, Aitziber Azurmendi Imaz, Josu Sarriegi Zumarraga, Marije Insausti Onda, Maialen Amundarain Irizar eta Ion Garmendia Iturbe.

Idazkari lanetan Idoia Garmendia Callejak dihardu.

Iñaki Eskisabel Zurututza kontu hartzaileak ere bileran parte hartu du.

**I.- AURREKO AKTAK.-**

Alkateak bilkurari hasiera eman ondoren, bertaratutakoen onespenera aurkeztu dira 2022ko ekainaren 30ean egindako ohiko, 2022ko uztailaren 21ean egindako ezohiko eta 2022ko urriaren 13an egindako ezohiko bilkuretako aktak, idatzita dauden moduan onartu direlarik.

**II.- ALKATETZAREN EBAZPENEN BERRI EMATEA.-**

Ondoren Alkateak azken Osoko Bilkuratik gaur arte emandako Alkatezaren Ebazpenen berri eman du, ebazpen hauen zenbakizko laburpen baten bidez.

Osoko Bilkura jakinaren gainean gelditu da.

**III.- KREDITU GEHIGARRI BIDEZKO 6. ZK. KREDITU ALDAKETA.-**

Udal honetako aurrekontuari eragiten dion kreditu gehigarrien bidez egin beharreko kreditu aldaketarako espedientea irakurri da.

Kontu hartzaileak egindako txostenak dioenez, aipatutako espedientea aplikagarria zaion araudiari egokitzen zaio, eta zehazki Udal Entitateen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 34. artikuluan ezarritako beharkizun eta tramiteei.

Era berean, Ogasun Batzordeak egindako aldeko txostena eta onepen proposamena irakurri dira.

Alkateak kreditu aldaketa proposamenaren xehetasunaren azalpena egin du.

Ormazabal zinegotziak (EH Bildu) esan du abstenitu egingo direla 4 kreditu aldaketa horietatik birekin ez daudelako ados. Horietako bat kiroldegiaren berrikuntzari dagokio-

na da, eta arrazoa proiektuarekin bat ez datozela da. Bestalde, kale garbiketari dagokionean, sinatzearen hitzarmena 5 urterako dela eta luzeegia dela iritzita, honen aurka daude.

Hau guztia honela, gaia bozketan jarri da eta Osoko Bilkurak, aldeko 7 botoz (EAJ-PNV), aurkako botorik gabe eta 6 abstentzioz (EH Bildu), honako akordio hauek hartu ditu:

**Lehenengoa.-** Udal honen aurtengo ekitaldiko Aurrekontuari eragiten dion kreditu gehigarrien bidez egin beharreko 6. zbk.dun kreditu aldaketarako espediente onestea, proposamenaren eta ondoko kapituluko laburpenaren arabera:

### KREDITU GEHIKUNTZAK

Kapituluak	Izena	Gehikuntzak
II	Gastuak ondasun arrunt eta zerbitzuetan	27.000,00 €
VI	Inbertsio errealak	100.000,00 €
<b>GEHIKUNTZAK GUZTIRA</b>		<b>127.000,00 €</b>

### FINANTZATZEN DITUZTEN BALIABIDEAK

Kapituluak	Izena	Zenbatekoa
VIII	Finantza aktiboak	127.000,00 €
<b>GUZTIRA</b>		<b>127.000,00 €</b>

**Bigarrena.-** Jendaurrean ikusgai jartzea, erreklamazioen ondorioetarako. Erreklamaziorik aurkezten ez bada, erabaki hau behin betikotzat joko da. Espediente honi Aurrekontu Orokorra onesteko ezarritako gainerako tramiteak eman beharko zaizkio.

#### IV.- KIROLDEGIA HANDITZEKO 5.1 FASEKO 1., 2. ETA 3. AZPIFASEAK BURUTZEKO OBREN KONTRATUAREN ALDAKETA ESPEDIENTEAREN ONARPENA.-

Osoko Bilkurak, 2022-10-13an egindako bilkuran, Joxemiel Barandiaran kirolegia handitzeko 5.1 faseko 1., 2. eta 3. azpifaseak burutzeko lanen egitasmoa, aldaketak sartuta idazteko baimena ematea erabaki zuen; obrak Iparragirre Eraikuntza Lanak S.L. enpresari esleitu zitzaizkion 4.035.273,63 eurotan (BEZik gabe).

Proposatutako aldaketa, kontratua arautzen duen administrazio-klausula berezien agirian jasota ez dagoena, kontratuaren lizitazioaren unean aurreikusi ezin zitezkeen eta gerora sortu diren inguruabarrek eragindakoa izan da, hain zuzen ere, obra zuzendaritza zerbitzua daraman Jovino Martinez Sierrak burutu duen txostenaren bidez egindako eskaririk.



2022ko urriaren 25ean, ebazpena eman zen aldatutako egitasmoa onesteko eta kontratistari entzunaldi epea eman zitzaion.

Legearen arabera emandako epean, kontratistak ez du alegaziorik aurkeztu.

Espedientean gordeta dauden txosten teknikoekin bat etorriz, obra-kontratua aldatzeko nahitaezko betekizunak betetzen dira, hau da, SPKLko 203., 205. eta 242.4. artikuluetan ezarritakoak.

Kreditu aldaketa egitea beharrezkoa da, kontu-hartzaileak adierazi duenaren arabera ez bait dago nahikoa kreditu obra hori egiteko udal aurrekontuko gastuen dagokion kontusailean. Beraz kreditu aldaketa bat egitea eskatzen du honek. Eta kontratu aldaketa honetarako beharrezkoa den saldoa egon dadin, kontzeptu hori barne duen kreditu aldaketa hori honen aurreko puntuan onartu du osoko bilkurak.

Era berean, udal idazkariak igorritako aldeko txostena ere badago.

Aldaketaren zenbateko likidoa 366.694,50 euro dira (BEZik gabe): ez da kontratuaren hasierako prezioaren %20 baino gehiago, BEZik gabe. Beraz, kontratistarentzat bete beharrekoa da.

Proposatutako aldaketaren ondorioz, kontratuaren prezioa horrela aldatzen da: %9,08. Beraz, behin betiko bermea zenbateko horri doitu behar zaio, aldatutako prezioarekin dagokion proportzioa izan dezan. Hona hemen bermearen zenbatekoa: 18.334,73 euro (SPKL, 109.3. artikulua).

Aldaketarako espedientea onesteko eskumena kontratazio-organoak du, hots, Osoko Bilkurak, SPKLko bigarren xedapen gehigarriko 1. idatz-zatian ezarri denari jarraituta.

Ormazabal zinegotziak (EH Bildu) esan du gai honetan ere abstenitu egingo direla, ez dutelako proiektuarekin bat egiten.

Hau guztia honela, eta gaia hirigintza, etxebizitza eta zerbitzuak eta ogasun batzordeetan informatuta izan ondoren, osoko bilkurak, aldeko 7 boto (EAJ), aurkako botorik gabe eta 6 abstentzioz (EH Bildu), akordio hauek hartu ditu:

**LEHENENGOA.** Iparragirre Eraikuntza Lanak S.L. enpresari hasiera batean 4.035.273.63 eurotan (gehi BEZa) adjudikatu zitzaion "Joxemiel Barandiaran kiroldedia handitzeko 5.1 Faseko 1., 2. eta 3. azpifaseak" burutzeko obrak egiteko kontratua aldatzeko espedientea onestea. Kontratuaren aldaketa hau Joxemiel Barandiaran kiroldedia handitzeko proiektuaren aldatutako egitasmoari jarraituta egingo da eta gaur egungo kiroldegiaren eta zabalkuntza berriko eremuaren arteko lotura konpontzean, zabalkuntza berriaren zimenduak eta egitura konpontzean eta euste-sistema konpontzean datza, eta kontratuaren aldaketa 366.694,50 euro dira (gehi BEZa).

**BIGARRENA.** Aldaketa honen ondorioz, obrak betetzeko epea ez da handituko, beraz kontratuaren epeak ez du aldaketarik jasango.

**HIRUGARRENA.** 366.694,50 euro gehi BEZ adinako gastua xedatzea, indarreko udal-aurrekontuaren dagokien partidetan zordunduz.

**LAUGARRENA.** Ebazpen hau kontratistari jakinaraztea, eta aditzera ematea, batetik, hamabost egun baliodun duela, hauxe jaso eta biharamunetik hasita, behin betiko bermea 18.334,72 euroekin gehitzeko eta kontratuaren aldaketa gauzatzeko, eta, bestetik, zein errekurtsio jar dezakeen.

**BOSGARRENA.** Aldaketa argitaratzea kontratatzailearen profilean, SPKLko 207. eta 63. artikuluetan agindu denari jarraituta.

#### V.- UDAL ERAIKINEN GARBIKETA KONTRATUAREN ALDAKETA ESPEDIENTEAREN HASIERA.-

Udal teknikariek, Udal eraikinen garbiketa kontratua aldatzeko beharra adierazi diote kontratazio organoari.

Udal eraikinen garbiketa zerbitzuaren esleipena 2020ko uztailaren 23ko Osoko Bilkuran erabaki zen eta zerbitzu hau Gureak Garbitasuna S.L. enpresari esleitu zitzaion berrehun eta laurogeita bat mila ehun eta hirurogeita hamabi euro eta berrogeita hamalau zentimoko (281.172,54 €) prezioan, B.E.Z. barne.

Kontratua 2020ko urriaren 5ean formalizatu zen.

2022ko irailaren 20an, Ikastolako San Prudentzio eraikineko hainbat guneren garbiketa burutzen zuen Udal langileak, borondatezko baja eskaera aurkeztu zuen urriaren 20ko datarako. Hau honela izanik, data horretatik aurrera lan hauek burutzeko beharra aurreikusten da.

Bestalde, Ikastolako San Benito eraikinaren handitzeko obra aurrera doa eta honen ondorioz, eraikinaren lehen erabilera baimena ematen denean, gaur egun 3.088,52 m<sup>2</sup> dauzkan eraikina 3.667,09 m<sup>2</sup> izatera pasako da. Beraz, kasu honetan ere garbiketa behar gehigarri bat sortuko da.

Behatutako zirkunstantzien eta ezaugarrien errealitatea ikusita, Udal teknikariek txosten bat egikaritu dute. Bertan, beharrezkoak diren jarduketa berriak proposatu dituzte eta beharrezkotzat jo dute behar diren aldaketak jasoko dituen kontratu aldaketa bat egitea, zerbitzua bera modu egoki batean egikaritu dadin.

Batetik, orain arte Udal langileak garbiketa zerbitzuan eman dituen asteko 35 orduak, udal eraikinen zerbitzua burutzen duen Gureak Garbitasuna S.L.U.-k egitea proposatzen da. Horrela, gaur egun eraikin hau garbitzen ematen dituen 50 orduak 35 orduko gehikuntza izango lukete, guztira 85 ordu izanik. Honek urtean 27.868,80 € gehi BEZeko kostu gehigarria suposatuko luke.

Bestetik, San Benito eraikinaren kasuan gaur egun astean 50 orduko zerbitzua ematen da eta zerbitzua astean 10 ordutan handitzea proposatzen da. Guztira, asteko ordu kopurua 60koa izatera pasako litzateke. Honek urtean 7.875 € gehi BEZeko kostu gehigarria suposatuko luke.



Aipatutako inguruabarren ondorioz, zerbitzu kontratuaren aldaketa beharrezkotzat jotzen da.

Kontratua aldatzeko beharra kontratua lizitatu zen unean aurreikusi ezin zitezkeen gerora sortutako inguruabarrek eragindakoa da, eta kontratua aldatu ahal izateko bete behar diren baldintza hauek betetzen direla esan dezakegu:

- 1.- Administrazio arduratsu batek aurreikusi ezin izan dituen inguruabarretatik dator aldaketaren beharra.
- 2.- Aldaketak kontratuaren izaera orokorra ez du aldatzen.
- 3.- Kontratua aldatzeak kontratuaren zenbatekoa aldatzen badu ere, ez du hasierako prezioaren ehuneko 50a gainditzen, BEZik gabe.

Ormazabal zinegotziak (EH Bildu) adierazi du beraiek nahiago dutela Udal langilearen ordezkia Udalak kontratatzea, Gureak Garbitasuna S.L.U. enpresaren bitartez kontratatzea baino. Modu horretan, Udalarentzat merkeago ere izango litzatekeela deritzo. Hau horrela izanik, abstentziora joko dutela esan du.

Hau guztia honela, gaia aztertu ondoren eta Ogasun Batzorde informatzailearen proposamenaren aurrean, Osoko Bilkurak, aldeko 7 botoz (EAJ-PNV), aurkako botorik gabe eta 6 abstentziorik (EH Bildu), Udal eraikinen garbiketa zerbitzuaren kontratuaren aldaketa espedienteari hasiera ematea onartu du.

#### VI.- ITURGAITZAGAKO 4 E.L. BESTERENTZEKO KONTRATAZIO ESPEDIENTEA ETA LIZITAZIO DEIALDIA.-

Lazkaoko Udala eta "Lazkao Lantzen SA" udal-sozietate publikoa, hurrenez hurren, 4 E.L. (Emaizazko Lursaila) bizitegirako lurzati eraikigarriaren %14,825eko eta %85,175eko partaidetza zatiezinaren jabeak dira. Lursail hori Lazkaoko Udal Plangintzako Arau Subsidiarioetako ITURGAITZAGA 6. hirigintza-jarduerarako eremuan dago, eta lurzati horretan etxebizitzak, garaiejak eta eranskinak eraiki ahal izango dira.

Lizitaziora 4 E.L. osoa aterako da. Lazkao Lantzen S.A.ren administrazio kontseilurak, 2022ko urriaren 19an egindako bilkuran onartu du, gaur osoko bilkura honetara onarpena jarri den baldintza plegua.

Esleipena arautuko duten prezioak edo tasak honako hauek izango dira:

- PR - 4 lursailaren gutxieneko salmenta-prezioa, gorantz hobetu daitekeena: SEIEHUN ETA BERROGEITA BEDERATZI MILA ZAZPIEHUN ETA HIRUROGEITA ZORTZI euro (649.768,00 €). Kontzeptu horrengatik esleipenean ateratzen den zenbatekoari dagozkion BEZa gehituko zaio.
- PR - 4 lursaila besterentzearen prezioaren ondoriozko zenbatekoak ez du urbanizazio-kargarik, eta lizitatzen den PR - 4 lurzatiari dagozkion eremua betetzeko geratzen diren kargak, saltzaileek ordainduko dituzte.

- 2014an Lazkao Lantzen S.A.k 4 E.L.ko partaidetza zati bat trukaketa bidez eskuratu zuen, eta trukean 3. solairuan kokatutako 70 - 72 m<sup>2</sup>ko etxebizitza bat eta soto solairuan kokatutako 15 - 16 m<sup>2</sup>ko garaje bat ematera behartu zen. Truke eskrituran etxebizitza eta garaje horrentzako finkatutako balioa EHUN ETA LAUROGEITA HAMABI MILA HIRUREHUN ETA HOGEITA HAMAZAZPI euro ETA BERROGEITA HAMAR zentimo (192.337,50 €) da. Horregatik esleipendun suertatzen denak, Lazkao Udalak adierazitako pertsonen lehen zehaztu diren ezaugarrietako etxebizitza eta garajea besterendu beharko dizkie eta besterentze eskritura hori egiterakoan Lazkao Lantzen S.A.k sustatzaile esleipendunari aipatutako zenbateko hori ordainduko dio.

Ormazabal zinegotziak (EH Bildu) esan du ados daudela.

Hau guztia honela, eta ogasun batzorde informatiboaren proposamenaren aurrean, osoko bilkurak, aho batez, Iturgaitzagako 4 E.L. besterentzeko kontratazio espedientea onartu eta lizitazio deialdia egitea erabaki du.

#### VII.- SEKTORE PUBLIKOAREN ZERBITZUKO LANGILEEN ORDAINSARI-IGOERA GEHIGARRIA 2022. URTERAKO.-

Urriaren 19an 18/2022 Errege Lege-Dekretua argitaratu zen EAOn, besteak beste, sektore publikoaren zerbitzuko langileen ordainsarien arloko neurriak onartzen dituena.

Zehazki, VIII. atalean, 23. artikuluan, Errege Lege-Dekretu horrek honako hau xedatzen du:

VIII. ATALA. Sektore publikoaren zerbitzuko langileen ordainsarien arloko neurriak (...).

"23. Artikulua. Sektore publikoaren zerbitzuko langileen ordainsari-igoera gehigarria, 2022. urterako."

1.- 2022rako Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 28ko 22/2021 Legearen III. tituluko I. eta II. ataletan, eta bat datozen gainerako aginduetan xedatutakoaz gain, 2022ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioak izan ditzan, sektore publikoaren zerbitzuko langileen ordainsariak ehuneko 1,5eko gehikuntza-gehigarria izango dute, 2021eko abenduaren 31n indarrean zeudenei dagokienez.

2.- Gehikuntza-gehigarri hori 19.Bi artikuluan xedatutako moduan egingo da, eta honako arau hauek beteko ditu:

Lehenengoa. 2021eko abenduaren 31n indarrean zeuden ordainsariei aplikatuko zaie. Beraz, bien baturak, nolana ere, ehuneko 3,5eko gehieneko ordainsari-igoera globala finkatuko du 2022ko ekitaldirako.

Bigarrena. 2022ko azaroko nominan gauzatuko da, eta atzerapen gisa ordainduko da aurtengo urtariletik urrira bitarteko hilabeteei dagokien igoera.



LAZKAOKO  
UDALA

Hirugarrena. Autonomia-erkidegoen eta toki-erakundeen eremuan, ordainketa 2022ko abenduaren 31 baino lehen gauzatu beharko da; eta, nolahi ere, 2023ko martxoaren 31 baino lehen.

Hau honela izanik eta Ogasun Batzorde informatiboaren proposamenaren aurrean, osoko bilkurak, aho batez, Lazkaoko Udalaren langileen ordainsariei ehuneko 1,5eko gehikuntza-gehigarria aplikatzea erabaki du.

#### VIII.- GALDERA ETA ERREGUAK.-

Ormazabal zinegotziak (EH Bildu) galdera bat luzatu dio Alkateari.

Ekainaren 30eko Osoko Bilkuran talde politiko bakoitzak (EAJ-k eta EH Bilduk) bi mozio aurkeztu zituen, batetik LGTBI gaiari buruzkoa eta bestea Osakidetzari buruzkoa. LGTBI gaiaren inguruan aurkeztutako bi mozioak onartu ziren, baina Osakidetzari buruzko mozioen kasuan EAJ-k aurkeztutakoa soilik atera zen aurrera.

Ormazabal zinegotziak galdetu du ea zer egin duen Lazkaoko Udalak Osakidetzari buruz onartu zen mozio horren mamia betearazteko. Alkateak erantzun du hartutako konpromisoak bete dituztela. Pertsonalki bildu zela Osasun Sailburuarekin, onartu zen mozioa azaldu ziola eta bertan hartutako konpromisoak helarazi zizkiola.

#### IX.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jo du, arratsaldeko zazpiak eta laurden direnean nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dudalarik.

LAZKAOKO  
UDALA